

## **Sorterritik sorterrira, lepoan hartu eta segi aurrera EIPKren ekarpena**

Sar hitza

-Euskal Iheslarien kolektiboa anitza eta zabala da. Mendeetan ugariak izan dira arrazoi politikoengatik eta jazarpen errepresiboak bultzatuta Euskal Herriak ihes egin behar izan duten euskal herritarrak. Erregimen frankistaren trantsizioaren baitako prozesuak ez zituen nazioen eskubideak aitortu, ez zituen beraz euskal herritar askoren nahi demokratikoak bete ezta Estatu Espainolaren botere guneen logika errepresiboaren benetako birmoldaketa ekarri. Ondorioz, 1977. urtetik aurrera ehunka izan dira ihesean joan diren euskaldunak, jada frankismo garaitik zeudenekin bat eginez, eta euskaldun horiekiko guztiekiko elkartasuna adierazteagatik beren mugimendu askatasuna mugatua duten herritarrak.

-50 urte hauetan iheslariok askotariko jazarpen neurriak pairatu ditugu. Errepresio estrategiak nazioartekotu direnetik gure kontrako jazarpena lurralde ezberdinetara zabaldu da. Egun ia kontinente guztietan, Estatu ugarietan, egoera juridiko ezberdinetan, kokatua dagoen Kolektiboa gara. Euskal iheslarion auzia nazioarteko auzi bilakatu dela esan dezakegu.

-Euskal iheslariok gatazkaren konponbidearen aldeko subjektu izan gara eta gara, konponbidearen alde izan diren iniziatiba politiko ezberdinak beti bultzatu eta egikaritu ditugu. Era berean, hamarkada hauetan gure giza eskubideak eta bizi duintasuna ziurtatzeko bitartekoak jarri ditugu eta norabide horretan nazioarteko eragile eta pertsona askoren elkartasun eskuzabala jaso dugu. Honek guztiak Kolektiboa egin gaitu.

-Hortaz, Euskal Herriak pairatzen duen gatazkari soluziobide demokratikoa emateko irekia den prozesua bultzatzeko ekarpena egin nahi dugu. Euskal herritar inork arrazoi politikoengatik gure herritik ihes egin behar ez dezan. Euskal Herriko gehiengoak eta nazioarte mailako eragile ugari gatazkaren izaera eta ondorioei erantzun demokratiko bat eman behar zaiola aldarrikatu dute. Horren aldeko dinamika berritzaile bat egituratzen dabilta eta guk prozesu horren baitako eragile aktibo bilakatzeko konpromisoa hartu dugu.

-Euskal herritar errepresaliatu guztiak Euskal Herrira eta beren etxeetara bueltatzeko garaia da. Eta gure eskutan dauden urratsak emateko prest gaudela adierazi nahi dugu.

## Konponbidea egituratzeko eta iheslariok etxeratzeko garaia heldu da

-Azken urteetan gatazka politiko armatuaren konponbiderako urrats eta erabaki garrantzitsuak eman dira. Hauen artean, ETA erakundeak borroka armatuaren erabilerari behin betiko uko egitea. Erabaki horrek, ezinbestean, gatazkaren izaera armatua beste parametro batean kokatu du. Gure ustez, egoera berri honetan, azken hamarkadetan ezarri edo gure kontra modu berezi batean erabili diren salbuespeneko neurri errepresiboak berraztertu behar dira. Neurri hauek indargabetzeko edo berraztertzeko askotarikoen arteko akordio politikoak beharko dira.

Bide honetan:

-Tortura bidezko deklarazioetan oinarrituta dauden prozedura judizialak eta, ondorioz, hauetatik eratorritako atxilotze aginduak zein euroagindu eta estradizioak bertan behera uztea eskatzen dugu. Nazioarte mailan, Estatu espainolean euskal auziarekin loturiko atxilotetetan tortura erabiltzen dela onartua dagoela azpimarratu nahi dugu gainera.

-Legedi arruntean oinarritutako arauetan jada artxibatuta/amaituta egon beharko luketen prozedura judizialak –hau da, salbuespenezko legediaren ondorioz oraindik bizirik dirautenak– bertan behera uztea eskatzen dugu.

-Iritzi, adierazpen eta elkartze eskubideen aurka irekitako prozedura judizialak eta, ondorioz, hauetatik eratorritako atxilotze aginduak zein euroagindu eta estradizioak bertan behera uztea eskatzen dugu.

-Munduko herrialde ezberdinetan deportatuta eta konfinatuta dauden euskal herritarren mugimendu askatasuna bermatzea eskatzen dugu, egoera horiei amaiera emateko.

-Mende erdi honetan arrazoi politikoengatik ihes egin behar izan duten euskal herritarren egoera anitza da. Batzuek harrera estatuen naziotasuna edo errefluxiatu politikoaren estatusa onartua dute. Iheslari gehienok ordea ez dugu inongo aitortza politikorik. Zenbait barne desplazatuak gara Euskal Herrian bertan, eta beste askok deportatuak, konfinatuak edo itzalean gaude mundu zabalean. Urteetako ibilbide honek gutariko askok prekarietate eta babesgabetasun egoera larrian egotera ekarri du. Iheslariok euskal herritarrak gara, nazioartean onartua den gatazka baten subjektu eta ondorioa, eta beraz euskal jendarteari eta agintaritzari politikoa dagokie gure bizi duintasun eta oinarritzko eskubiak ziurtatzeko neurriak hartzea. Besteak beste:

-Iheslari gaixo larrien zerrenda eta beren egoera konpontzeko bideak aztertuz.

-Bazterketa egoeran dauden iheslariaren duintasuna ziurtatzeko neurriak hartuz.

-Iheslari guztion etxeratzean lagunduz.

Denbora pasa ahala egoera hauek larrituko direla ohartu nahi dugu, ugaririk baitira 60 urtetik gorako euskal iheslariak.

-Euskal Herriak pairatzen duen gatazka eta enfrentamenduaren konponbidea sustraiko arrazoi politikoei eta ondorioei soluzioa emateko prozesuaren eskutik etorriko da. Horrela adierazi du euskal gehiengoak. Gatazkaren ondorioen soluziobidean kolektibo ezberdinek pairatu dituzten/ditugun eraso eta bizitako egoeren kontaketa eta hauen konponbide soziala garrantzitsua dela uste dugu. Hau baita modu konpartitu batean eraiki nahi dugun jendarte demokratiko berriarentzako baldintza eta oinarrietako bat.

-Iheslariok, desagertuenak, kalteak eta hildakoak eragin dituzten erasoak bizi izan ditugu. Hauen atzean Estatu espainolaren zein frantsesaren eskuhartzea dago. Iheslariok, senideek eta Euskal Herriak, oro har, gertakari hauen inguruko egia jakiteko eskubidea dugu.

-Era berean, gure herriaren ondare kontsideratzen dugun heinean, urte hauetan bizitakoa eta gure hautu politikoaren zergatiak euskal jendarte osoarekin partekatzekeo dugun nahia adierazi nahi dugu.

Konponbide garaia da, Euskal Herriaren geroari itxaropenez begiratzeko eta berriro ere inoiz inork bere sorterritik ihes egin behar ez izateko. Gizon-emakume librez osaturiko herri librekoa egitera goaz.

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa

Biarritzen, 2013ko ekainaren 15ean